

# **Sindikatuok Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei mahaiko bilera datorren astearen barruan deitzeko exijitzen diegu, premiazkoak diren bi eremu hauek lantzeko: greba amaierako edukien exekuzioa eta ikastetxeetara presentzialki itzultzeko baldintzak**

Azken egunotan ikastetxeetara presentzialki itzultzeko aukeraren inguruan Hezkuntza Saila egiten ari den kudeaketa erabat arduragabea eta inprobisatua izaten ari da. Ikasketa presentzialetara itzultzeko "planak", zehaztugabetasuna, prezipitazioa eta aldebakarkotasuna ditu ezaugarri nagusitzat, langileen ordezkariekin zein gainerako hezkuntza eragileekin ez baita ez partekatze ez eta negoziaketa errealkik egon. Agerikoa da, langile, ikasle eta gainerako hezkuntza komunitatearen osasuna bermatzeko baldintzarik ez dela ematen gaurkoz itzulera presentziala abian jarri ahal izateko.

Beste behin ere atzo komunikabideen bidez jakin genuen hezkuntza sailaren azken erabakia. Zenbait etapa eta kurtsotan Maiatzak 18an jardun presentzialari ekin ahal izateko aukera, Maiatzak 25era atzeratzen dela alegia. Datetik haratago, jarduera presentziala berrartzeko kondizioa osasuna eta segurtasuna bermatzeko baldintzak ematen direla izan behar da. Hau horrela, sindikatuok Hezkuntza Sailari Hezkuntza sistema osorako itzulera presentzialerako plana langileen ordezkariekin negoziatzeko esparruak ireki ditzala eskatu diogu. Behin plan orokor hori adostuta, ikastetxe bakoitzeko ordezkariekin landu beharko direlarik itzulerarako kontingentzi plan propioak.

Gaurko lotuta geneukan Lan Hitzarmenaren negoziazioarako mahaia atzeratzea erabaki du patronalak, atzo jakinarazi zigunez. Bilera atzeratzeko, itzulera presentzialari lotutako egoera nahasiari egiten dio aipamena.

Azkeneko mahaiko bilerara (apirilak 24) patronalek ekarri zuten lan hitzarmen berriaren erredakzio proposamenean, greba amaierako akordioan adostutako gai ugari modu egokian jasotzen ziren. Besteak beste, adostutako soldatu igoerak, kolektibo desberdinenzat adostutako lanaldi murriketak, ordu osagarriak zein opor aldiak edota erretiro partziala %75eko murriketarekin hartzeko eskubidea. Hainbat gai garrantzitsu zintzilik geratu ziren ordea:

- Lan pertsonalerako ordu osagarrien definizioren inguruan gure desadostasuna adierazi genien. Ordu hauetako aurretiaz bakoitzaren egutegian jasoak izan behar dira, eta proposatutako definizioan hau ez da bermatzen. Sindikatuok egindako proposamena aztertzekotan geratu ziren patronalak eta erantzuna pendiente dago.
- Azken mahaian Urtarrilean erretiroa hartzeko eskubidea izan eta oraindik erretiroa izapidetu ez zaien langileek, atzerapen honengatik kalterik ez dutela izango adierazi bazuten ere (erretiroa urtarrilean izapideitura izan balitz bezala, data berdinean utzi ahalko diotelako ikastetxeo lan presentziala egiteari), oraindik ez dira erretiro hauetako izapidezen hasi.
- Erretiro partziala, birkokapena zein Lanbide Heziketako edukiak exekutatu eta abian jartzeko pausoak ematea ezinbestekoa izanik, gai hauetan aurrerapasuoak ematea premiazkoa da.

Egoera honen aurrean, ELA, STEILAS eta CCOO sindikatuok, Hezkuntza Sailaren arduragabekeria eta inprobisazioak aste honetan sortu duen egoera ulertuta, garbi daukagu aldi berean, ez dugula ontzat emango ez neurrigabeko luzatze gehiago, ez eta osasun krisi honen salbuespenezko egoera erabiltzerik ere greba amaierako akordioan jasotako edukien exekuzio blokeatzeko.

Gainera, kontuan hartuta, hasieran ez bezala, azkenik ikastetxeetara presentzialki itzultzeko aukera abian jartzea, zein datetan, zein etapetan eta zein ikas taldeentzat, ikastetxe bakoitzaren esku utzi duela Hezkuntza Sailak, ezinbestekoa deritzogu negoziazio mahaian sektoreko patronal nagusiek, itzulera presentzialaren inguruan daukaten asmoa langileen ordezkariekin partekatu eta negoziatzeari.

Egoera honen aurrean, sindikatuok Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei mahaiko bilera datorren astearen barruan deitzeko exijitzen diogu, premiazkoak diren bi eremu hauet lantzeko, greba amaierako edukien exekuzioa eta ikastetxeetara presentzialki itzultzeko baldintzak.

Euskal Herrian 2020ko maiatzak 15ean.

# **Los sindicatos ELA STEILAS y CCOO Irakaskutnza, exigimos a las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA que convoquen la mesa de negociación dentro de la próxima semana para abordar estos dos asuntos urgentes: la ejecución de los contenidos del acuerdo de fin de huelga y las condiciones para el retorno presencial a los centros**

La gestión que en los últimos días está realizando el Departamento de Educación sobre la vuelta presencial a los centros está siendo totalmente improvisada e irresponsable. El "plan" de retorno a clases presenciales se caracteriza por la indefinición, la precipitación y la unilateralidad, ya que no ha habido ningún espacio real de negociación ni con la representación de las trabajadoras ni con el resto de agentes educativos. Es evidente que, hoy por hoy, no se dan las condiciones para un retorno que garantice la salud de las personas trabajadoras, del alumnado y en definitiva de toda la comunidad educativa.

Una vez más a través de los medios de comunicación, ayer conocimos la última decisión del Departamento de Educación. La posibilidad de iniciar la actividad presencial en algunas etapas y cursos el 18 de mayo es retrasada, finalmente, al 25 de mayo. Más allá de la fecha, la premisa para la reanudación de la actividad presencial debe ser que se den las condiciones que garanticen la salud y la seguridad. Por ello, los sindicatos hemos solicitado al departamento que negocie con la representación de las personas trabajadoras el plan de retorno presencial para todo el sistema educativo. Una vez consensuado dicho plan general, los planes de contingencia propios para el retorno deberán ser compartidos y negociados con los y las representantes de cada centro.

Por otro lado, la patronal ,según nos informó ayer, ha decidido aplazar la mesa de negociación de Convenio prevista para hoy a causa de la complicada situación generada a raíz del retorno a las clases presenciales.

En la propuesta de redacción del nuevo convenio que las patronales trajeron a la última reunión de la mesa (24 de abril), se recogían de forma adecuada muchos de los temas acordados en el acuerdo final de huelga. Entre otros, los incrementos salariales pactados, las reducciones de jornada pactadas para los diferentes colectivos, las horas complementarias y los períodos de vacaciones o el derecho a acogerse a la jubilación parcial con una reducción del 75%. Pero quedaban pendientes algunos temas importantes:

- Les trasladamos nuestra disconformidad con la definición de horas complementarias para el trabajo personal. Estas horas deberán estar fijadas previamente en el calendario anual de cada una de ellas, y en la definición propuesta esto no se garantiza. La respuesta a la propuesta de los sindicatos quedó pendiente.
- Aunque en la última mesa manifestaron que las personas con derecho a jubilarse en enero y a quienes aún no se le ha tramitado la jubilación, no se verán perjudicados por este retraso ( podrán dejar de trabajar presencialmente en el centro en la misma fecha que si hubiese tramitado la jubilación en enero), todavía no han iniciado la tramitación de estas jubilaciones.
- Siendo imprescindible dar pasos en la ejecución y puesta en marcha de la jubilación parcial, la recolocación y los contenidos sobre F. P., exigimos a las patronales que se avance en estas materias.

Ante esto, los sindicatos ELA, STEILAS y CCOO Irakaskuntza, aun entendiendo la situación de caos generada esta semana por la irresponsabilidad e improvisación del Departamento de Educación, tenemos claro que no vamos a dar por buenas ni más dilaciones desproporcionadas, ni la utilización de la situación excepcional de esta crisis sanitaria para bloquear la ejecución de los contenidos recogidos en el acuerdo de fin de huelga. Además, teniendo en cuenta que, a diferencia de lo que ocurría inicialmente, el Departamento ha dejado en manos de cada centro la decisión sobre volver a los centros de forma presencial, en qué fechas, en qué etapas y para qué grupos de aprendizaje, es imprescindible que en la mesa las principales patronales del sector comparten y negocien con la representación de las trabajadoras las condiciones sobre ese retorno presencial.

Ante esta situación, los sindicatos ELA, STEILAS y CCOO Irakaskuntza exigimos a las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA que convoquen la reunión de la mesa dentro de la semana que viene para trabajar estos dos asuntos que urgen, la ejecución de los contenidos del acuerdo de fin de huelga y las condiciones para el retorno presencial a los centros.

Euskal Herria, 15 de mayo de 2020.

